

EKOIZPEN PROZESUA

Ekoizpen prozesuaren faseak:

1. Aurreprodukzioa: pentsatu, definitu, aukeratu, antolatu
2. Produkzioa: gauzatu, grabatu, jaso, egin
3. Postprodukzioa: batu, ordenatu, forma eman
4. Banaketa eta komertzializazioa: jakinarazi, zabaldu

1. AURREPRODUKZIOA

- Proiektuaren planteamendua:
Proiektuaren helburua aztertu eta zehaztu. Telebistan, adibidez, urrats honetan kateak eta produktorak elkarrekin egiten dute lan. Ideiak, oinarriak eta *targeta* (zeini zuzenduko zaion) ezartzen da eta publizitate merkatu posiblea eta errentagarritasuna ebaluatzen dira. Gauza bera gertatzen da beste mailako proiektuekin.
- Gidoia egin, giza baliabideak eta baliabide teknikoak aztertu eta lortu. Telebistan, programa pilotu baterako gidoia ematen zaio telebista kateari oniritzia eman dezan; ondoren, aurrekontuen inguruko erabakiak hartuko dira.
- Lokalizazioak bilatu eta muntaia eszenikoa egin. Dekoratu erreal zein birtualak lortu. Grabazioan beharko diren elementuen planifikazioa egin: talde artistikoa, gidoia, musika eta produkzio zein errealizazio talde osoa, elementu fisiko eta egitura teknikoa, dekoratuak, makilajea, unitate mugikorak, efektu bereziak...
- Banakapenean, estrategia publizitarioan eta komertzializazioan pentsatu.

2. PRODUKZIOA

- Grabazioa ahalbidetuko duten tresna teknikoak aurretiaz probatu.
Aktore eta gonbidatuen hitzorduak egin.
- Errealizazioaren azken erabakiak hartzen lagunduko duten entseguak egin.
- Grabazioa edo filmaketa egin.

3. POSTPRODUKZIOA

- Batasuna ematen lagunduko duten hartzerik onenak aukeratu eta azken ukituak eman irudiari eta soinuari.
- Edizio eta sonorizazio prozesuak bideratu

4. BANAKETA

- Zuzeneko programa emititu
- Bestelako proiektua bada, helburuaren arabera, behar den tokira bideratu: festibalak, telebista kateak, sare sozialak...

1. AURREPRODUKZIOA:

1. Ideia eta gidoia
2. Balorazioa/Finantzaketa
3. Ekoizpen plangintza edo egutegia
4. Gidoi teknikoa
5. Diseinu artistikoa: argiak, arte zuzendaritza, lokalizazioak...
6. Banakapenak edo desgloseak
7. Casting-a
8. Aurrekontua
9. Pertsonal teknikoa kontratatu, materialak eta zerbitzuak alokatu, dekoratuak eraiki, jantziak egin...
10. Baimenak eta aseguruak: erantzukizun zibila, lan-istripuak, lapurretak...
11. Entseguak eta grabaketa probak
12. Grabaketa plangintza

2. PRODUKZIOA

13. Grabaketa edo filmazioa / Errealizazioa platoan. Fase honetako bi dokumentu garrantzitsu:
 - Lan ordena edo lanerako agindua
 - Grabazio txostena / Jarraikortasun txostena

3. POSTPRODUKZIOA

14. Edizioa edo muntaketa: muntaketa gidoia
15. Irudi postprodukzioa
16. Soinu postprodukzioa
17. Kredituak

4. BANAKETA ETA HEDAPENA

18. Banaketa dossierra
19. Banaketa estrategia: festibalak...